Gerrari, militarizazioari eta gastu militarrari EZ. Bizitza duina denontzat!

Manifestu proposamena EUS

Dinamika belizista, gerra ekonomia eta militarizazioa bizitza duinak bermatzen dituen ereduaren aurkako joera estrukturalak dira. Honek, bidezko trantsizio ekosozialaren aurka egiten du, gastu militarra gastu sozialaren aurrean lehenesten du, eta autoritarismoaren zein gorakada atzerakoiaren eskutik datoz.

Sistemaren krisi-testuinguru batean, kapitalismoak irabaziak pilatzen jarraitu nahi du eta potentzia nagusiak militarismoan ikusten dute beren interesak bermatzen jarraitzeko modua. NATOk gastu militarra BPGaren %5era igotzea inposatu du. AEBek Venezuelari egindako eraso inperialistak, Kubaren erabateko blokeoak edota Gazako genozidio lazgarriak dinamika beraren parte dira.

Hemengo patronalak ere badauka honetan zer esanik: Jainaga Jainaga Israeli legez kanpoko esportazioak egiteagatik inputatu dute, eta Josu Jon Imaz esaten du Repsolek hirukoiztu egingo duela Venezuelan duen inbertsioa AEBen injerentziaren ondoren. Azken 20 urteetan hirukoiztu egin da industria militarra Euskal Herrian; patronalak gerraren bidez negozioa garbi ikusten du. Europar Batasuna, Espainiako eta Frantziako Gobernuak, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak ere ezinbestekoak dira estrategia honek aurrera egin dezan. Gerra hemen hasten da.

Honen ondorioak batez ere larriak dira gerra hauek zuzenean pairatzen dituztenentzat: heriotza, migrazio behartuak, lurraldeen, komunitateen eta bizitzarako azpiegituren suntsiketa. Hala ere, langile klaseari bere osotasunean eragiten dio, eskubide sozial, zibil eta politikoetan murrizketak ematen direnean, gastu militarraren igoerari lotuak.

Euskal Herria Gerraren aurka agertu da behin eta berriz, argi eta garbi. NATOri EZETZ esan genion eta Intsumisoen mugimendu zabala izan genuen. Asko gara bestelako eredu baten aldeko apustua egiten dugunok, eta horregatik, manifestu honetako erakunde sinatzaileek EAEko eta Nafarroako gobernuei eskatzen diegu, baita ordezkaritza duten euskal alderdi politikoei Hego Euskal Herriko erakunde ezberdinetan, Madrilen eta Europan, konpromisoak har ditzatela eta esparru ezberdinetan erabakiak har ditzatela:

1. Euskal Herria lurralde baketsua eta desmilitarizatua izan dadila. Gerra-azpiegiturei eta arma-bidalketari ez.Gastu militarraren murrizketa eta NATO desegiteko urratsak, horretarako Euskal Herriko eta Nafarroako parlamentuetan neutraltasun estatutuak onartuz.

2. Gerraren negozioari EZ. Patronalei eta enpresei industria militarraren alde ez egiteko eskatzen diegu, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako gobernuari, industria militarra zuzenean edo zeharka indartzen duten inbertsiorik ez egiteko. Baliabide hauek trantsizio ekosozialerako eta industriaren birmoldaketarako erabiltzea, langile-klasea erdigunean jarriko dituena eta sektore iraunkorretara bideratua egongo dena.

3. Baliabide publikoak bizitza duinak bermatzeko: gastu militarrari ez. Eskubide sozial, pentsio edota zerbitzu publikoetan murrizketarik ez; hezkuntza, osasuna, zaintza eta etxebizitza eskubideak bermatu. Elikadura osasuntsua bermatu eta benetako neurriak hartu krisi klimatikoari aurre egiteko. Harrera duina bermatzeko baliabideak bermatu eta mota guztietako harresiak eta migrazio-politika arrazistak ezabatu.

4. Autoritarismoari eta oldarraldi erreakzionarioari EZ. Balio militaristen, matxisten, arrazisten, indibidualista, klasista, eta kontrol soziala handitzearen aurrean, gardentasuna, eztabaida demokratikoa eta herritarren erabakitzeko gaitasuna bermatzeko eskatzen dugu.

Propuesta de manifiesto CAS

La dinámica belicista, la economía de guerra y la militarización son tendencias estructurales contrarias a un modelo que garantice vidas dignas. Va en contra de una transición ecosocial justa, priorizan el gasto militar frente al gasto social, vienen de la mano del autoritarismo y el auge reaccionario.

En un contexto de crisis del sistema, **el capitalismo busca seguir acumulando beneficios y las principales potencias ven en el militarismo la forma de velar por sus intereses.** La OTAN impone subir el gasto militar al 5% del PIB. La agresión imperialista de EEUU a Venezuela, el bloqueo total de Cuba y el atroz genocidio en Gaza hacen parte de lo mismo.

La patronal de aquí no es ajena: Jainaga imputada por exportaciones ilegales a Israel y Josu Jon Imaz dice que Repsol triplicará su inversión en Venezuela tras la injerencia de EEUU. En los últimos 20 años se ha triplicado la industria militar en Euskal Herria; **la patronal ve claro el negocio a través la guerra.** La Unión Europea, los Gobiernos español y francés, el Gobierno Vasco y el Navarro, son agentes indispensables de esta estrategia. **La guerra empieza aquí.**

Las consecuencias de esto son sobre todo dramáticas para quienes sufren directamente estas guerras: muerte, migraciones forzadas, destrucción de territorios, comunidades e infraestructuras para la vida. Sin embargo, también perjudica a la clase trabajadora en su conjunto, a través de la los **recortes de derechos sociales, civiles y políticos, vinculados a la subida del gasto militar.**

Euskal Herria se ha manifestado claramente en contra de la Guerra una y otra vez. Le dijimos NO a la OTAN y tuvimos un amplio movimiento de Insumisos. Somos muchas personas que apostamos por otro modelo, y por ello, las organizaciones firmantes **exigimos a los gobiernos de la CAPV y Navarra, así como a los partidos políticos vascos con representación en las distintas instituciones de Hego Euskal Herria, en Madrid y Europa**, que asuman compromisos y tomen decisiones en los diferentes ámbitos para que:

1. Que Euskal Herria sea un territorio pacífico y desmilitarizado. No a las infraestructuras de guerra y al envío de armas. Reducción del gasto militar y pasos pasos para la disolución de la OTAN, aprobándose para ello estatutos de neutralidad en los parlamentos vasco y navarro.

2. No al negocio de la guerra. Pedimos a patronales y empresas que no apuesten por la industria militar, y a los Gobiernos Vasco y Navarro que no realicen inversiones que fortalezcan la industria militar directa o indirectamente. Destinar esos recursos para una transición ecosocial y una reconversión de la industria que sitúe a la clase trabajadora en el centro y que apunte a sectores sostenibles.

3. Recursos públicos para garantizar vidas dignas: no al gasto militar. No a los recortes en derechos sociales, pensiones o servicios públicos; educación, sanidad, cuidados y vivienda. Derecho a una alimentación saludable y medidas reales para hacer frente a la crisis climática. Recursos para garantizar una acogida digna y eliminación de todo tipo de muros y de las políticas migratorias racistas.

4. No al autoritarismo y al auge reaccionario. Frente a la expansión de valores militaristas, machistas, racistas, individualistas y clasistas, así como el aumento el control social, exigimos transparencia, debate democrático y la capacidad de decisión de la ciudadanía.